

 IKUSMIRA

MUNDUA:
SEI ARGAZKI ESANGURATSU

Palestina edo AEBetatik harago, irudi adierazgarriak utzi ditu 2024ak

GAUR8



DPR | EUROPA PRESS

> **Sheinbaum, Mexikoko presidente**

Mexikoko lehen emakume presidentea da, eta seiurteko honetan Laugarren Iraultzan sakondu nahi du: pentsioen, osasunaren eta hezkuntzaren unibertsalizazioa, soldaten

igoera... Bide horretan, lehen-tasunen artean kokatu du emakumeen aurkako femi-nizidioari aurre egitea, baita he-rrialdean gertatzen diren bes-telako hilketak saihestea ere.



CONTACTO | EUROPA PRESS

> **Eskalada militarra mundu mailan**

Polo bakarreko mundutik polo anitzekora, mundu mailako or-dena geopolitikoa aldatzen ari da. Tartean, potentzien arteko lehia eta gatazkak azkartzen ari dira, sekulako eskalada dis-

kurtsibo eta militarrekin. Bi bilioi dolarretik gorakoa da ja-da mundu mailako gastu mili-tarra (%40 AEBena). Hala, ar-gazki hau munduko txoko ugaritakoa izan zitekeen.



Ivan ROMANO | GETTY

> **Aita Mari, bizitzak erreskatatzen**

«Itsasoz ihes egitera behartu-takoen duintasuna eta segur-tasuna defendatzea» ipar, aur-ten ere ehunka bizitza salbatu dituzte Aita Marikoek. Na-zioarteko komunitateak «kon-

ponbideak eskaintzeko» ardu-ra duela nabarmendu dute. Bien bitartean, «laguntza ema-ten eta Mediterraneoaren errealitatea ikusgai egiten» ja-rraituko dute.

> **Independentismoa
Governetik kanpo**

Urte askoren ostean, Kataluniako alderdi independentistek gehien-go osoa eta Governa galdu zituzten maiatzeko hauteskundeetan. Juntsek eutsi zion arren, ERCK eta CUPEk sekulako beherakada izan zuten. Bilana egin eta estrategiak doitzeko asmoz, Junts, ERC eta CUPEk kongresuak egin dituzte. ANC eta Omniumek, berriz, «oinarrizko independentismoa beraktibatze» deia egin zuten Diadan.



Javier MOSTACERO | GETTY



Remon HAAZEN | GETTY

> **Fronte Herritar Berria, garaile**

Estatu frantsesean hauteskunde legegileak egin ziren ekainean eta uztailen. Lehen itzulian ultraeskuinak sekulako emaitzak eskuratu zituela ikusita, bigarrenorako Fronte Herritar Berria eratu zuten La France Insoumisek, Alderdi Sozialistak, Alderdi Komunistak eta beste hainbatek, eta irabaztea lortu zuten. Alabaina, Macronek emaitzei entzungor egiten segitzen du.



Pablo BLAZQUEZ | GETTY

> **Puntu eta segida edo aparte?**

Begoña Gomez emaztearen aurkako ikerketa judiziala abiatzean, Pedro Sanchezek bost eguneko hausnarketa egin zuen apirilean, segitzeak «merezi ote zuen» erabakitze-ko. Azkenean, jarraitu egin zuen: «Hau ez da puntu eta segida bat izango. Puntu eta aparte bat izango da». Momentuz, hurrengo paragrafoa idazteke jarraitzen du.